



OINARRIZKO EKINTZAK

Gure online denda bidez saltzen dugu eta fisikoki saldu ahal izateko lankidetzak sortzeko asmoa dugu, gure filosofia bera duten zenbait dendek gure musukoak sal ditzaten.

Pertsonalizatzen ditugun produktuak, ehun organikoarekin lan egiten duten gertuko hornitzaileei erosten dizkiegu, bukatutako produktuak dira guztiak.

Guk gure lokalean produktuen pertsonalizazioa egiten dugu inprimagailu digitalen bitartez.

Honakoa da prozesua pausoz-pauso:

1. Bezeroek eskaria egiten digute online denda edo email bitartez. Produktua mota, kolorea eta zenbatekoa aukeratu, eta bertan inprimatu nahi duten diseinua bidali behar digute png formatuan eta kalitate hobenean.
2. Produktuak ez baditugu stockean, hornitzaileei eskaria egingo diegu.
3. Produktuak pertsonalizatzen ditugu:
 - a. Ordenagailuan irudia prestatu eta inprimagailura bidali.
 - b. Ehun inprimagailu digitalarekin irudia inprimatzen da produktuan.
 - c. Prentsa beroaren bitartez, irudia lehortu.
4. Behin produktuak pertsonalizatuta, guk gure lokalean paketatzen dugu eskaria, bilgarri ekologikoak erabiltzen baititugu, gure enpresaren irudia ere badelako eskaria iristen den modua.
5. Amaitzeko, garraio enpresara bideratzen dugu haiek banatu dezaten. Garraio enpresa azpikontratatu egiten dugu; mezularitza enpresa batekin egiten dugu lan, gure paketeak txikiak izaten direlako.
6. Salmenta ondorengo arreta: Bezeroari gogobetetze-inkesta bat bidaliko diogu posta elektronikoz bidez, arazoren bat egon den jakiteko eta hobekuntzak egin ditzazkegun jakiteko.